

aberriratzten ba-gera, zer egingo zenduke geure erriaren aldez?»

Eta nik, berehala: «Zumaian Nautikako Ikastetxe bat egingo nuke; Lekeition bezela, Portugaleten bezela,...»

Zorionak ez zigun lagundu, eta gogo hau ezin izan dugu bete; baina *Zeruko Argia*-n, Donostiako estropadaren berriak irakurtzean, begiak pozezko malkoz bete zaizkit eta bihotzak egin didan zirrara, eta artu dudan poza, barruan ezin kabitu zaizkidalako idatzi dut lantxo hau. Nere erritar arraunlariak goratzeko. Euren ohorez. Ondo irabazia dutelako.

Eta hainbeste aldiz nere sorterriko berri emaile diran «Aizpurua» jaunak, «Arrantzale»-k, «J. B.»-ek edo beste norbaitek, gizon hoi en izen-deiturak argitaratuko balituzke, *Zeruko Argia*-n, zordun izango nintzake.

Durango, 1969-10-4.

JOSE AZURMENDI

Zegama (Gipuzkoa) du bere jaioterria 1941-eko martxoaren 19-an. Aita Frantziskotarra. Alemanian ari da Filosofia eta Psikologia estudiatzen. Euskaltzain laguntzailea. Garai batean *Jakin*-en zuzendaria izana. Aldizkari askotan argitaratu ditu bere lanak, batez ere *Jakin*, *Egan*, *Anaitasuna*,... Poeta bezala, era berriko gazteen artean goren mailako bat dugu, Gandiagaren *Elorri* bilduma bere hautapen eta oharrez egina da, eta poema asko *Olerti*-n argitaratuak ditu, baina gehienak oraindik argitaratzeko. Horiek argia ikusten dutenean

itzal handia izango du gure poemagintzan. (Bilduma batek, *Hitz Berdeak* izenez, laster ikusiko du argia.) *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, argitaratzeko.

KONDAIRA ZIENTZIAZKI EZAGUTU

Marx-ek zientziazki hauteman omen zuen kondairaren funtsa. Afanasiev-en eskuliburu ezagunean halaxe irakurtzen da: «una teoría científica del desarrollo social», - «ciencia de las leyes más generales del desarrollo social».

Halare, arta bizi hartu behar da hemen zientziazkotasunaren muga hertsiez. Kondaira ezagutzea ez da gugandik aparte dagoen zerbait ezagutzea. Berez ikusten da zientziazkotasun hau ezin izan daitekeala, esaterako, matematikarena bezalakoxea. Afanasiev-ek, Konstantinow-ek eta kondairazko materialismoaren zientziazkotasuna bereziki goraldtu izan duten marxista klasikuek ilun utzi dute zientziazkotasuna zein zentzun eta neurritan ulertu behar den.

Kondaira bere baitarik eta objetibuki gobernatzen duten lege unibertsalak idoro omen zituen Marx-ek, horrek egiten omen du teoria marxistaren zientziazkotasuna. Baina hemen ere problema handi bat dago: azterketak egiteko *metodu* bezala da kondairazko materialismoa zientziazko, ala *teoria* legez ere bai? Bide-gurutze honetan hasten direla esan liteke filosofilari marxisten arteko diferentzia handiak. Havemann-ek, adibidez, *metodu* bezala bakarrik hartuko

luke zientziazkotzat, eta bestea egiteak dogmakoike-
ria dakarrela uste du. Iritzi horrekin positibismoa eta
marxismoa, ideologia gisan, alferrikazko bihurtzera
doala eragozten diote kontrarioek.

H. Lefèbvre marxistak honela erakutsi du buru-
hauste bihurri hau: «Zer da marxismoa? Gainegitura
edo superestruttura bat? Ideologiaren bat (proletar-
goaren ideologia), — ala zientzia bat? Eta azkeneko
hau bada, nola erantzi ote lezake zientzia honek bere
soinetik ideologia?».

Eragozpen asko dago kondaira bere baitarik zer
den zientziazki jakiteko. Batez ere kondaira «zer
den» zuzen, zientziazki galdetzea da zaila: azterka-
tzen abiatzeko metodoa erabakitzea.

Ezen-eta kondaira «zer den» galdetzen duenak
interes eta ardura batzuekin galdetzen baitu, hau da,
ikusgune batekin, eta honek bere ikusaldea edo pers-
pektiba ezartzen dio azterketari. Ikusguneak eraba-
kitzen du azterketak zein *naturaleza* aurkituko dion
kondairari. Baina, geu kondairaren barruan egonik,
ba ote daukagu erabateko objetibutasun irmoko ikus-
guneren bat finkatzerik? Subjetibuki eta probatu ga-
be ezarritako aurrez-eman edo presupuestorik batere
gabeko ikusguneren bat, alegia.

Holako bat eskuratu ezkerro segurantzaren osoarekin
antzean ahal izango litzake, alde aurretik, egoera
konkretu batekin zer gertatuko den. Beraz, nora goa-
zen eta zer egin behar dugun. Subjetibismo alferretan
denborarik eta indarririk ez alferrikaltzeko, ba, kon-
dairazko lege objetibuen arauera ibili beharko litzake.

2. Egia da, inola ekitekotan, kondairaren bidean ekin beharra daukagu noski guk euskaldunok ere, barragarri gelditu nahi ez badugu. Jerjes-en itsasoazotatzeak ez du ezertarako balio itsasontziak urperatu eta gero. Baina ez da erraz etorkizuna zuzen igartzea. Marx-ek eta Engels-ek, esaterako, alferrikotzat zeukaten Txekoslovakia-ren nazio-burrutak, kondairaren interesak eta bideak bestelakoak zirelakoan. Makina batek eduki zuen Lenin-en erreboluzioa ere kondairaren kontrakotzat.

Dena dela, segurantza osoarekin zuzen ekitekotan, kondaira norantza doan argitu beharko genuke lehen-lehenik. Horrela bakarrik arituko gara gu kondairaren zerbitzuan eta kondaira gure alde. Baina kondairarekin batean ari garela jakiteko ez da aski modarekin ote gabiltzan begiratzea: kondairaren helburuak ezagutu beharko genituzke.

3. Helburua ezagutu. Teorian behintzat ona dirudi bururazio horrek: kondairaren helburua inola ezagutzerik balego!

XIX mendean baiezko uste zindoan zebiltzan kondaira-azterkatzaileak. Kondairak helburu bat eduki behar duela, formalki behintzat, besterik gabetsu onhartzen zen. Aspaldian zebilen Europa kondairaren helburua Jaungoikoa omen delako usteari zaputze ginda. Baina jadanik helburu absolutu batez galde-tzea zentzunezko ote den, eta batez ere, halako galderak zientziaren barruan erortzen ote diren galde-tzea, ez zitzairen nonbait bururatu. Zientziek ere be-

ren neurri eta mugak baitauzkate, erabilitako metodoek ezarritakoak bereziki.

Kondaira funtsean eta azken-finean zer den argitzen abiatu ziren orduan gartsuki. Esan zuen Hamlet-ek (1,5), gure filosofiek amets-egin ahal baino gauza askoz gehiago dagoela zeru-lurretan (there are more things in heaven and earth, Horatio, than are dreamt of in our philosophy»). Baina Hamlet espektiku bat zen, eta XIX mendeko arrazoi-zaleek ezin zioten kasu handirik egin halako bati. Spengler da, ezpairik gabe, tradizio honek gure mendean sortu duen esponenterik irakurri eta ezagunena, eta baita kondairaren lege-bideetan sinestuenetako bat ere. Bila eta bila, kondairaren giharra eta funtsa hautemateko metodo famatu bat aurkitu zuen: analogia. Ezen-eta kondaira beti berean dagoela uste baitzuen. Kondaira, Spengler-en teorian, urte-aroen kalendariorik bat bezalatsu da: ba doaz egunak eta urteak, baina egun berri guztiak eta urte berri guztiak dira funtsean joandakoarekin berdina, ezberdintasun materialen batzuk gora-behera. Kondaira funtsean geldi badago, berriz, itxurazkoak bakarrik dira aurrerapenak. Ez dago aurrerapen formal edo zertasunezkorik, zenbatezko edo materialazko soilak baino. Mendebalearen hondamendia iragarri zuelako da Spengler bategi ere ezaguna.

Ezin esango da iritzi hau jakituria herritarrarekin ados ez dagoenik. Esaera eta errefau asko baitago irudipen honen alde. Filosofian ere Eleatarren siste-

ma bezala ezagutzen da (Xenofane, Zenon, Parmenide). Beraz, antzinatik datorren ustea da.

Halare, azalpenik gabe uzten da teoria horrekin aurrerapena, eta Marx-ek beste azalpide bati ekin zion: kultura batetik bestera nabari diren materiak aldakuntza eta berritasun horiek aldakuntza eta berritasun formal (zertasunezko) bihurtzen zirela une determinatu batetan. Materiak aldakuntzak sortzen dituen, berriz, lana da. Beraz, lanak sortzen du kondairaren aurrerapen formal ere. Baina, oraindik oraingoz behintzat, klase-burrukaren baldintzapenekin burutzen da lana. Horregatik, ba, klase-burruka ezabatuaz gaindi joan beharko du kondairak, bere helburua eskuratzeko, kondairaren beraren aldakuntza formal erabatekora. Egiazko kondairaren kondaira-aurrean gaudela esango du Marx-ek: lan librearekin hasiko baita gizonaren kondaira.

Eta hemen dago Marx-en kondaira-konzeptuaren prolema: helburu formal bakarra ez baino materialki determinatutako helburua aurrez-ematen edo suposatzen baitu Marx-ek. Hau da, zientziek eman ezindako premisa bat sartu du, isil-isilik, bere argudioan. Alegia, kondairak helbururen bat eduki behar duela bakarrik ez baino, helburu horretan justizia, bakea, berdintasuna, etc. dagoela ere bai. Nondik daki Marx-ek, bestela, burrukaok aldatu ezik arras eta erabat menderatu eta gainditu ahaltakoak direnik? Hori, itxaropen txarra ez bada ere, ez da zientzietatik hartutakoa, erlijioetatik baino.

Hau ez da, gero, maleziatiaren susmoren bat ba-

karrik, eta gutiago bekaizkeriaren gaitz-esanik: mailaz maila jarrai eta erakus baititeke nola kondaira funtsean batasun guztizko eta behetik gora gailurreraino igozkoaren ikuskera Marxenganaino Hegelengandik eta Hegelengana bere sorterriko pietista suabiarrengandik datorren. Hoen teologian, izan ere, kondairak «egitamu eskatologikua» daduka, hots, bere buruaz jabetzen ari den absolutuaren igidura edo burruka da kondaira («Jainkoaren Erreinuaren» tipologiarekin). Eta ez da zaila aurkitzea nola pietistak, Cocceius etabar bitarteko, Ioakin Fiorekoarekin eta Erdi Aroko kondaira-teologiarekin eskuz esku ari diren, hain zuzen arrazionalisten aurka, burutapen hoekin aritzean. Arrazionalistek mugimendurik gabeko «arrazoizko» elementuak uste zituzten kondairaren barneenean.

Denbora bateko marxistak tximistak botatzen hasiko ziren holako «irainik» entzun ezkerok: zein eta Marx erlijioak kutsatuta! Zientziek bete ezindako hutsunea erlijioaren postuladuekin erremediatzen Marx!

Gaurko filosofilari marxistak, egiatzko filosofilariak behinik behin, mantsoagoak dira: bene-benetan saiatzen dira Marx-en utopiazko aldeak azterkatzen. Eta pixka bat amore eman ere egin diote Marx-en kondaira-konzeptua zientziazkoa omen zelako usteari (dogmakoikeria utzi dutenek behintzat). Konturatu egin baitira, konturatu, bere naturalezagatik beragatik dela zientzia (positibu) hutsezko metoduek argitu ezindakoa kondaira-funtsaren galdera hori. Eta behin

horretara ezkeroko burugabekeria da marxismoaren eta erlijioaren artean, Marx-en eta Unamuno-ren artean, kontrastea bakarrik ikustea. Bion arteko harremanik gehiago ere ba dagoela erakutsi dute, azkenik, marxisten eta kristauen elkarrizketek.

4. Marx ezkeroko asko aldatu dira zientzia-zaleen ikusaldeak eta kezkek ere. Esistentzialismoarekin prolematiku bihurtu zen kondairaren erabateko helbururen batez mintzatzea. Estrukturalismoarekin ardua hori alferrikazkotsu bilakatzen dela dirudi. M. Foucault-ek halaxe dionez, «pentsakera kausalistaren utopia (omen) da kondairaren helburuaren ameskeria galanta». Eta Lévi-Strauss-en iritzian, gehien-gehienez ere XIV mendea ezkeroko eta mendebaleko gizarteak azterkatzeko bakarrik balia omen gintezke Marx-en azter-moldeaz.

Nolanahi ere, gure egunotako pentsamentuaren ezaugarri nabarmenenetako bat erlatibismoari darion eskeptizismoa da. Eta pluralismoarekin lotzen da hau. Pentsamendu ohorezkorik izateko derrigor sistema bat konfesatu beharra edo nahia itzalita dagoela esan liteke. Horrek bota ditu konfesionalismoen sistemak hankaz gora. Sistemaok Elizaren baten edo Alderdiren baten mantupean babesten baziren ere, egiaren autoridadea egiari berari barrutik dariona da, edo hura bakarrik onhartzen da gaur, eta ez egiari kanpotik, esaldia dogmazko edo zientziatzko-ta omen delako kalifikazioekin ezarri nahi zaiona. Pentsamentu-gisa, iritzi, kezka, ardura, metodo, sinesmen, filosofia eta asmo ugariko gizartea da gurea. Ez dago

gauza guztiontzako monismorik, mahain batik. Baina ez gizartea bakarrik: geure buruok bihurtu dira, sistematik ez profesatzean, joera eta iritzi ezberdinen Parlamentu urduri. Gizartearen ondoren gizabanakoa bera bilakatu da (bere baitan) pluralista.

Garaudy marxistak, luzaro azpiratuta eduki zuen dogmakoikeria hastantzen ausarturik, esaera labur batekin azaldu digu fenomeno honekin sortzen den egoera berriaren esanahia (1966-an!): kondairaren helburua eta legeak ezagutzen genituen usteak porrot egin du. Ez dakigu kondaira zein legerekin dabilen.

Beraz, zuzen aritzekotan kondairaren helburua ezagutu behar delarik ere, *gure* kondairaren helburua izango da ezagutu beharrekoa, ez erabat kondairarena. Eta hau ere ez abstraktuki eta orokorki, konkret oraingoxe kondairaren helburua baino.

Zer gertatu zan Marx-ek Txekoslovakia-ren nazio-burruka aurrerabide gabekotzat eman zuenean? Aldez aurretik arakatutako ideologiarekin epaitzen zuela. Fenomenu orokorraren kasu partikular batekin ari zelakoan epaitu zuen. Eta ideologia honen arauera klase-burrukak bakarrik iruditzen zitzaizkion nondik-norakodun, beraz, etorkizunera bideratuak. Klase-arazoa zela Txekoslovakia-koa, beraz, nazio-burruka legez eramán ezkeror porrot egin behar zuela derrigor. Baina gertaerek beste bide bat aukeratu zuten. Eta horrekintxe adierazi dute espezie bateko kasu partikular ez baino fenomeno eta espezie bereziak zirela. Ez dagoela burruka-mota bat bakarrik, ugari baino.

Halare, Hegel-i erasotzen dion askok jarraitzen du hari esaten ausartu izana leporatzen dion esaldia-
ren jokabidearekin obretan: gertaerak ideologiarekin
konforme ez baldin badaude, gertaerentzat okerrago.
Eta ideologia ezertan berriztatu ez berrikusi gabe
jarraitzen dute, munduan ezer jazo ez balitz bezalaxe.
Ez da hori Marx-ek bere teoriekin nahi zuena: ger-
taerak interpretatzeko eta adierazteko nahi zuen ha-
rek teoria, eta laguntza horrekin zer egin jakiteko.
Alegia, praktikarako.

Baina baita paktikarekin ideologia aldatuaz joa-
teko ere.

Ikas dezagun, ba, noizpait, zilegi edo haizu ez
denik ez egiten. Hau da, gure buruz ikasitako ideo-
logiaren batekin egoera ez epaitzen, jazoerak teoriari
ez subordinatzen, prolemak geure (edo geure Alder-
diaren) asmoen eta programen funtzinoan ez azter-
katzen. Batez ere ikasi, kondaira unibertsalaren az-
keneko gune eta orpoa horixe ez omen delako-edo,
euskal arazoak ere ezin funtsean, adibidez, nazio-ara-
zo ezin izan litezkeanik, *a priori*, ideologiaren batega-
tik, ez erabakitzen. Jokabiderik kontrazientziazkoena
baita hori.

Beste gauza bat ikastea ez da gutxiago inportante:
jarraitzen diren ideia eta usteak artikulu fedekotzat
ez eukitzea. Beharbada, orduan, elkarren arteko kri-
tikak eta iritzien ezberdintasunak ez lituzkete eus-
kaldunak elkarren etsaitan banatuko. Eta hain pre-
miazkoa dugu batasuna, ideien ezberdintasunak gal-
du gabeko batasuna.